

Ezpalak

JON TORNER

Gregorio Diaz Ereño izango da Altzuzako (Nafarroa) Oteiza museoko zuzendari berria. Egun, Lizarrako (Nafarroa) Gustavo de Maeztu museoko zuzendaria da Diaz Ereño. Oteiza Museoa Fundazioko patronatuaren erabakiz, berak beteko du Pedro Manterolaren lekua.

Juan Izuzkizaren *Paranoiaren hozberoa (Nintendorena)* saiakera plazaratu du Pamiela argitaletxeak. Iazko Juan Zelaia Saiakera Saria irabazi zuen liburu horrek. Bestalde, aurtengo ediziorako lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da.

Bestalde, Aitor Arana idazleak *Hilezkorrak* (SM-Ikasmina) liburua plazaratu du. Aranaren lanak Baporea gazte literaturako narrazio saria irabazi zuen iaz.

Joserra Senperena pianista donostiarrak *Dardaren interpretazioa* (Gaztelupeko Hotsak) diskoa kaleratu du. Harkaitz Canok idatzitako izen bereko liburuko poemak ditu ardatz Senperenaren lan berriak. Blues ukituko hamahiru abestik osatzen dute diskoa.

Artea, dantza, musika, zinema... udaberri loretsua Artiumen



Gasteizko Artium arte garaikideko zentroak 50 ekitaldi baino gehiago eskainiko ditu udaberriari: Art+Sound musika jaialdia, Gauekoak musika zikloa, Dantza Garaikideko Zirkuitua, *Erabili aurretik, astindu* erakusketaren harira antolatutako

zinema zikloa, tailerrak, Irakurketa kluba... Kultur adierazpide ugari izango dute euren tartetxoa Gasteizko lorategian. Horiez gain, hainbat hitzaldi izango dira Artiumen. Elissie Ansareo (apirilaren 9an), Carmela Garcia (16an) eta Zigor Urrutia (maiatzaren 28an) artistek eta Mariasun Landa idazleak parte hartuko dute mintzaldietan. Bestalde, maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Egunean, egitarau berezia eskainiko du arte garaikideko zentroak. Besteak beste, Modest Mussorgsky konpositore errusiarraren *Pictures at an Exhibition* obran oinarritutako emanaldiaz gozatzeko aukera izango da egun horretan.

Zeruak Bartzelona bonbardatu zuen

JESUS GARAY zuzendariak (Santander, 1949) Bartzelonako bonbardaketaz egin duen *Mirant al cel* filma Euskal Herrian ikusgai da jada. 1938ko martxoaren 16, 17 eta 18an –Gernika bonbardatu eta ia urtebetera– hegazkin italiarrek etengabe jipoitu zuten Kataluniako hiriburua. 1.300 lagun hil zituzten italiarrek jaurtitako bonbek. Fermin Muguruza musikari irundarrak sortu du filmerako musika, eta efektu bereziak Gasteizko Silverspace enpresak egin ditu. Paolo Ferrari eta Gabriela Flores dira protagonista nagusiak.

Gari Garaialde argazkilariak *Xirikari*: «Argazki hutsaren bitartez manipulatzeko ezinezkoa da, argazki soil batek sekula ez baitu informaziorik emango. Ez da hizkuntza oso bat. Argazkiak gertaera baten kontuarekin zerikusia duen momentuan sor daiteke manipulazioa. Informazioa duenean helburu. Hamar lagun besterik ez zuden une batean, adibidez, laukiratzearen bitartez hiru besterik ez daudela edo jende multzo izugarri bat dagoela aditzera eman badigu, hor manipulazioa dago. Horretarako ez dugu Photoshoparen beharrik. Hala ere, honako hau da amorru gehien ematen didan eta gaur egun oso zabaldua dagoen kontu bat: jarri zaitez honetan ariko bazina bezala... klik!».

Iñaki Murua Bertsozale Elkartearen lehendakariak *Berrian*: «Transmisioak garrantzi handia du. Transmisioaren alorra administrazioak eta hezkuntzak bete beharrek da. Guri, elkarte gisa, ez zaigu interesatzen bertsolari gazteak hezkuntzako langile bihurtzea; gehiago interesatzen zaigu kulturari dinamismoa eta bizia emateko sortzaile paperetik alantzean ibiliz gauza berriak eskaintzeko egoeran jartzea

gazte horiek (...) Pertsonaren izaera aberasteko, psikologia sendotzeko, bizitzaren aurrean mundua eta bizitza beste begi batzuekin ikusteko aukera ematen du bertsolaritzak».

Felipe Juaristi idazleak *Beterriko Liburua* aldizkarian: «Gaurko literaturaren arazorik handiena idazle oso onak egon arren, idazle asko egotea eta denentzat irakurleak ez egotea da. Garai batean lana nekezago egiten zen. Orain dirua dago tartean, errekonozimendua ere badago (...) Nik marjinatua sentitzearen samina sumatzen dut eta ez dago soluziorik. Nire buruari askotan esaten diot ni ez nintzela ofizio honetan aberasteko edo famatua egiteko sartu. Idaztea eta batez ere, euskaraz idaztea gustatzen zaidalako baizik».

Iratxe Esnaola informatika ingeniariak *Garan*: «Badi-rudi Interneteko sarean sarean bizitza ez birtualean ditugun mugak gaingitzen direla. Eta hori, erabiltzaileek erakutsitako jarrera gero eta nabarmenagoa da. Ia denok entzun izan dugu emailak irakurri egiten dituztela. Eta, halere, edozer idazten dugu horietan. Kontzienteki edo ez».

Abarrak

MIKEL GARCIA

Zorionak, Kong

King Kong. AEB, 1933. Zuzendariak: Merian C. Cooper, Ernest C. Schoedsack. Aktoreak: Fay Wray, Robert Armstrong, Bruce Cabot, Frank Reicher. 104 min.

“Eta orduan, piztiak ederraren aurpegia begiratu zuen. Eta bere eskuek hiltzeari utzi zioten. Egun hartatik aurrera, heriotzara kondenatu zuen bere burua”, dio *King Kong* film originalaren hasierako erreferentzia arabiarak.



Kong erregea, ordea, ez da hil. Aitzitik, martxoan 75 urte bete berri ditu eta jubilaziotik urrun da oraindik: 1933an Manhattango Radio City Music Hallen estreinatu zutenetik, zinematografiaren historiako piztiarik ezagun eta maitagarrienetakoa komiki, marrazki bizidun, telesail, bideojoko, panpina eta beste makina bat gauza bilakatu dute. Filmaren *remake* ugari ere egin dituzte: Godzilla beldurgarriaren aurka borrokan jarri zuen Ishiro Honda japoniarra eta 2005ean efektu bereziz betetako azken bertsioa kaleratu zuen Peter Jacksonek.

Horren guztiaren gainera, kultura garaikideko ikonoa da King Kong. Emakume ederrarekin maitemindu zen munstro bakartia; gizakiek bere bizilekutik atera eta hiritar kuriosoentzako ikuskizun bihurtu nahi izan zutena; Manhattango ingurune arrotzean zoratu zenean, Empire State fatatuan akabatu zuten tximinoa.

Interpretazio franko egin izan dizkiote istorioari: batzuen arabera, naturari eragiten dizkiogun ekintzak gizakion kontra jartzen direla azpimarratzen du filmak; besteen esanetan, inposatutako arauen aurkako oihu aske eta borrokalaria da *King Kong*. Kolonialismoa, arrazismoa edo sexismoa bezalako gaiak ere ukitzen ditu pelikulak. Zeinek daki, AEBetako Depresio garaian, arazoez ahazteko ihesbide atsegina izateko asmoa baino ez zuen izango agian. Kontuak kontu, une hartarako aurrerakoiak ziren efektu berezietan gain, irudi liriko eta indartsuak utzi dizkigu 1933ko pelikula honek. Garaiko eraikinik altuena konkistatu osten zutela jausten den munstroaren imajina gogoangarria da.

Hain juxtu, New York zinemarako eszenatoki oso interesgarria izan zitekeela deskubritzen lehenetarikoa izan zen *King Kong* eta horregatik Garezuraren Irlako izaki erraldoiari estimu berezia diote New Yorkeko biztanleek. Hiri horretan, urteurrena ospatzeko Fay Wray ederraren oihuak imitatzeko garrasi lehiaketa antolatu zuten eta film originala proiektatu. Dударik gabe, pelikula klasiko hau ikusteko aitzakia ezin hobea izan daiteke urtemuga.



**gaztelupeko
HOTSAK**

Erreal 23
28940 SOMALUZE
Tel: +34 943 733014
Fax: +34 943 790134
gaztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com

WWW.
HOTSAK.
COM



KARELEAN
56. Getatik



MORAU TA AGOTAK
Kalamidadiak



THUNDERS EXPRESS / SIXTYSEXERS
SEWERGRUOYES / SARRIS ROCK & ROLL TRIO
A 4 Split EP* | 10"



JOSERRA SENPERENA
Dardaren interpretazioa



**GAINSBURG
GAINBEGIRATUZ**